

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ARRASATEKO UDALA

Pertsonala

*Sorosleen lan poltsa osatzeko deialdia eta oinarriak.*

*Lehena. Deialdiaren helburua.*

Hautaketa probak deitu ditu Udalak, sorosle lan posturako «lan poltsa» bat eratzeko, bertako langileekin bete ezin diren behar berriei aurre egiteko.

Deialdi honen ondorioz eratuko den lan poltsak lehentasuna izango du aurreko lan poltsei dagokionez denboraldiko lanpostu hutsak betetzerako orduan.

Beste edozein administrazio publikok erabili ahal izango du lan poltsa hori, Arrasateko Udalarari hala eskatzen dioten lanpostuetan eta azken horrek baimena emanaz gero.

Lanpostu hori dagokio C2 taldeari, eta ordainduko da udalaren ordainketa taularen 9,5 mailaz.

*Bigarrena. Egitekoak.*

Lanpostuaren ardura nagusiak dira: Arduratzea erabiltzaileen segurtasunaz eta osotasun fisikoaz eta udal eraikinen erabilera egokiaz.

Esate baterako, lanpostuaren egiteko zehatzak dira:

– Soroslea bainu eremuan egongo da funtzionamendu orduetan, eta igerilekuko erabiltzaileek samur identifikatzeko moduan. Denbora tarte horretan ezingo du egin beste jarduerarik, ez bada eremua eta erabiltzaileak zaintzea eta kontrolatzea.

– Zaintzea etenik gabe igerileku ontzia eta haren ingurua, istripuak prebenitzeko.

– Aplikatzea lehen laguntzako teknikak.

– Gainbegiratzea bainu hartzaileek zuzen erabiltzen dituzten instalazioak, eta kontrolatzea gehieneko edukiera, bainu hartzaileko.

– Zaintzea etenik gabe zorrotz betearazteko segurtasun eta portaera arauak, eman direnak igerileku ontziak erabiltzeko.

– Zorrotz betetzea legeriak betearazten dituen eskakizunak eta jardunak, uneoro indarrean dagoena erabilera publikoko igerilekuei buruz, eta horiek lotuta badaude zuzenenean zerbitzuaren zereginarekin.

– Jakinarazi eta informatzea bere mailaz edo funtzioz gora-gokoari zerbitzuan diren gorabeheraz edo akatsez.

– Uneoro zuzen eta errespetuz jokatzeko erabiltzaileekin.

– Arduratzea botikina ondo erabiltzen eta haren inbentarioaren kontrola zorrotz eramatea.

– Beste zeregin batzuk egitea, bere lanbide kategoriaren be-rezkoak, formazio egokia izanez gero.

AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Personal

*Convocatoria y bases para la creación de la bolsa de trabajo de socorristas.*

*Primera. Objeto de la convocatoria.*

Se convocan pruebas selectivas para la confección de una nueva «Bolsa de Trabajo» en relación con el puesto de socorrista, para atender nuevas necesidades coyunturales que no se pueden cubrir con personal propio.

La bolsa que se vaya a confeccionar mediante esta convocatoria tendrá preferencia a la hora de cubrirse las vacantes temporales frente a las anteriores bolsas en vigor.

Podrá utilizarse dicha bolsa por cualquier otra Administración Pública, en aquellos supuestos que así lo soliciten al Ayuntamiento de Arrasate y sea autorizado por este último.

Dicho puesto corresponde al Grupo C2 y estará retribuido con el Nivel 9,5 de la tabla de retribuciones del Ayuntamiento.

*Segunda. Funciones.*

Las responsabilidades generales del puesto son: Responsabilizarse de la seguridad e integridad física de los usuarios y del buen uso de las instalaciones municipales.

A modo indicativo, las funciones concretas serán las siguientes:

– El socorrista permanecerá en la zona de baño durante el horario de funcionamiento, debiendo ser identificado de forma fácil por los usuarios de la piscina. Durante dicho período no podrá efectuar ninguna otra actividad que no sea la de vigilancia y control de dicha zona y de los usuarios.

– Vigilar permanentemente el vaso de la piscina y sus cercanías para prevenir accidentes.

– Aplicar las técnicas de primeros auxilios.

– Supervisar el correcto uso por parte de los bañistas de las instalaciones, controlando el aforo máximo por bañistas.

– Velar permanentemente por hacer cumplir de manera rigurosa las normas de seguridad y de comportamiento dictadas para el uso de los distintos vasos.

– Cumplir estrictamente con las exigencias y actuaciones que deriven del total cumplimiento de la legislación que en todo momento sea vigente respecto a las piscinas de uso público, y que se relacionen directamente con el cometido de su servicio.

– Comunicar e informar de las incidencias o anomalías en el servicio a su superior jerárquico o funcional.

– Observar en todo momento la corrección y respeto debido a los usuarios.

– Responsabilizarse del buen uso del botiquín y llevar estricto control del inventario de este.

– Realizar otras tareas propias de su categoría profesional para las que tenga adecuada instrucción.

*Hirugarrena. Hautagaiek bete behar dituztenak.*

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, hauek bete behar dira:

- a) Nazionalitate espainiarra izatea, 5/2015 enplegatu publikoaren oinarriko estatutu-testu bateratuko 57. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- b) Hamasei urte beterik izatea eta, hala badagokio, nahi-taezko erretiroaren gehienezko adina ez gainditzea.
- c) DBHn graduatua (eskola graduatua), Lehen mailako lan-bide heziketaren edo baliokide den titulu baten jabe izatea, edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- d) Behar den titulu ofizialaren jabe izatea sorospen zerbitzua emateko EAEko lurralde eremuan.
- e) 3. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea.

Euskararen ezagutzari dagokion ziurtagiri bidez frogatu ez dutenek (C1 edo 3. Hizkuntza Eskakizuna) Euskara Sailak pres-tatutako azterketa egin eta gainditu egin beharko dute.

- f) Diziplina espediente bidez Administrazio zerbitzuetik baztertu ez izana, ez eta funtzio publikoak betetzeko gaitasunik gabe egotea ere.
- g) Ez egotea legezko ezintasun edo bateraezintasun egotean.
- h) Lanbide, ogibide eta jarduera batera iristeko eta horretan aritzeko, horrek dakarrenean lan egitea adingabeekin, baldintza bat dago, hau da, kondenaturik ez egotea epai irmoz delituren bat egiteagatik sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurka, zeinetan sartzen diren sexu erasoa eta sexu abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa, eta adingabeak galbideratzea, bai eta gizon-emakumeen salerosketa ere. Hartarako, norbaitek iritsi/aritu gura badu horrelako lanbide, ogibide edo jarduera batean, egiaztatu beharko du esandako hori ziurtagiri baten bidez, non agertuko duen ez dagoela erregistratuta sexu delitugileen erregistro zentralean.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte hautagaiek, g) hizkian jasota dagoen bateraezintasun baldintza izan ezik, lanpostuaz jabetzen den egunean edo kontratua izenpetuko duen egunean bete beharko baitu, aukeratua izanez gero.

*Laugarrena. Eskabideak.*

4.1. Eskariak non eta nola aurkeztu: Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak, ondorengo eratakoren batean aurkeztuko dira:

- 4.1.1. Udaleko erregistro orokorrean (BAZ-Arano eta Garcia maisu-maistrak, 8).
- 4.1.2. Udal webgune bidez ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus) / herritarren ataria).
- 4.1.3. 39/2015 legeak –Administrazio publikoen prozedura amankomun legeak– 16.4 artikuluan ezarri moduan.

Eskaerarekin batera ez da aurkeztu behar bestelako dokumentazio gehigarririk. Eskari-inprimakia oinarri hauen eranskin gisa dago atxikia.

4.2. Epea: 10 egun balioudun, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

4.3. Adierazpen espresua: Eskabidean adierazi beharko da deialdiaren oinarri-arauetan eskatutako baldintza guztiak betetzen direla. Horretarako sinatutako adierazpena egin beharko da.

4.4. Ezgaitasuna dutenen kasuan: Ezintasunen bat daukaten lehiakideek hala adierazi beharko dute eskaeran, dagokion laukia markatuz. Era berean, beharrezko balute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Lehiakideak hauek aurkeztu beharko ditu, bate-

*Tercera. Requisitos de las personas aspirantes.*

Para poder tomar parte en el proceso selectivo será necesario:

- a) Tener la nacionalidad española sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 57 del texto refundido Ley 5/2015, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público.
- b) Tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.
- c) Estar en posesión, o haber abonado los derechos para su expedición, de un título de: graduado en ESO (graduado escolar), Formación Profesional de primer grado, o equivalente.
- d) Estar en posesión del título oficial necesario para prestar servicio de socorrismo en el ámbito territorial de la CAV.
- e) Acreditar el Perfil Lingüístico 3 o equivalente.

Las personas que no acrediten mediante el correspondiente certificado el nivel de conocimiento de euskara (C1 o Perfil Lingüístico 3) deberán realizar y superar, la prueba que para tal fin realice el Departamento de Euskara.

- f) No haber sido separada mediante expediente disciplinario de la Administración, ni hallarse inhabilitada para el ejercicio de las funciones públicas.
- g) No hallarse incurso en causa legal de incapacidad o incompatibilidad.
- h) Será requisito para el acceso y ejercicio a las profesiones, oficios y actividades que impliquen contacto habitual con menores, el no haber sido condenada por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual, que incluye la agresión y abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución y explotación sexual y corrupción de menores, así como por trata de seres humanos. A tal efecto, quien pretenda el acceso a tales profesiones, oficios o actividades deberá acreditar esta circunstancia mediante la aportación de una certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

Los/as aspirantes deberán reunir los requisitos previstos a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias, a excepción del requisito de incompatibilidad contemplado en la letra g), que deberá cumplirse a la fecha de la toma de posesión o de la firma del contrato, si resultase seleccionado.

*Cuarta. Instancias.*

4.1. Donde y como presentar las solicitudes: Las instancias solicitando tomar parte en el proceso selectivo, se presentarán en cualquiera de estos modos:

- 4.1.1. En el Registro General del Ayuntamiento (BAZ-Arano eta Garcia maisu-maistrak, 8).
- 4.1.2. A través de la web municipal ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)/portal del ciudadano).
- 4.1.3. En la forma establecida en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No deberá adjuntarse ninguna documentación a la solicitud. El impreso de solicitud viene adjuntado como anexo en las presentes bases.

4.2. Plazo: 10 días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

4.3. Declaración expresa: En la solicitud se debe manifestar que reúnen todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria. Para ello, se ha de firmar la declaración.

4.4. En caso de discapacidad: Los y las aspirantes con discapacidad deberán indicarlo en la solicitud, para lo cual se utilizará el recuadro correspondiente. Asimismo, deberán expresar las posibles adaptaciones de tiempo y medios que, en su caso, consideren necesarias para la realización de las pruebas selec-

tik, ezintasuna jasotzen duen egiaztagiri ofiziala eta, bestetik, egin beharreko egokitzapenen inguruko txostena. Agiri horiek onartuen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik aurkeztu beharko ditu, epaimahaiak denbora izan dezan egin beharreko egokitzapenak egiteko. Ezintasuna daukate abenduaren 2ko 51/2003 Legeko 1.2. artikuluan zehaztutakoek (Pertsona Ezinduen Aukera Berdintasunerako, Bereizkeriaren Aurkako eta Irisgarritasun Unibertsalerako Legea). Bestela esanda, administrazioan horretarako eskumena daukan organoak 100eko 33ko elbarritasuna edo handiagoa aitortu dieten pertsonak dira ezinduak edo elbarriak.

4.5. Datu pertsonalen tratamenduaren baimentze automatikoa: Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar eskaeran jasotako datu pertsonalak tratatzeko onepena, dagokion iragarkiak jartzeko eta lan poltsa kudeatzeko. Datuak ikusi, aldatu, zuzendu edo ezabatzeko eskubideaz baliatu nahi izanez gero, dei egin duen organora jo beharko dute.

#### *Bosgarrena. Hautagaiak onartzea.*

Eskubideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartu eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda zehaztuko du Alkateak, eta udaletxeko web orrian argitaratuko da zerrenda hori.

Aipatu zerrendan baztertuta agertzen diren hautagaiek 3 egun baliaduneko epea izango dute zerrendatik kanpo uztearen kontra eta hori gertatzeko egon daitezkeen akatsak zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko.

Erreklamatzeko epe hori igarotakoan eta horiek erabaki eta gero, onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartuko du alkateak eta horiek iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea aginduko du. Behin-behineko zerrenda besterik gabe behin betikotzat joko dugu, inolako erreklamaziorik egon ezean.

Prozeduraren edozein momentutan jakinez gero Epaimahaiak hautagaietako baten batek ez duela betetzen deialdian eskatzen diren baldintzetakoren bat, hautaketatik kanpo utziko dute, interesdunari entzun eta gero.

#### *Seigarrena. Epaimahaia.*

Honela eratuko da hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia:

Epaimahaiburua:

– Antolaketa teknikaria edo berak delegatzen duen teknikaria.

Epaimahaikideak:

– Kirol saileko burua edo bera ordezkatzeko duen teknikaria.

– Kirol teknikari bat, karrerako funtzionarioa.

– Udal Administrazio orokorreko funtzionario bat.

– Udal funtzionario bat.

Idazkaria:

– Pertsonal saileko administrari bat.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoa du, prozeduraren objektibotasunaren arduradun da eta deialdiko oinarriak betetzea bermatuko du.

Epaimahaia edo hautaketa organo teknikoa eratuko da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten gizon eta emakumez, modu orekatuan. Salbuespena emateko, neurri honen desgokitasuna behar bezala justifikatuko da.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak ezik. Bileran direnen gehiengoz erabakiko du epaimahaiak, eta berdinketa egonez gero, epaimahaiburuak erabakiko du.

La persona solicitante deberá aportar certificado oficial de reconocimiento de la discapacidad e informe relativo a las adaptaciones requeridas. Esta documentación deberá aportarse con anterioridad a la publicación de la relación definitiva de admitidos y excluidos, a fin de que el Tribunal pueda adoptar las medidas oportunas. Se entenderá por personas con discapacidad las definidas en el artículo 1.2 de la Ley 51/2003, de 2 de diciembre, de Igualdad de Oportunidades, no discriminación y Accesibilidad Universal de las personas con Discapacidad, es decir, aquellas a quienes se les haya reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 por el órgano competente de la Administración.

4.5. Autorización automática para tratamiento de datos personales: La participación en este proceso selectivo supone la aceptación del tratamiento de los datos de carácter personal recogidos en la instancia para las publicaciones y gestión de la bolsa de trabajo. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse al órgano convocante.

#### *Quinta. Admisión de aspirantes.*

Terminado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldesa, determinará la lista provisional de las personas aspirantes admitidas y excluidas, que se hará pública en la página web del Ayuntamiento.

Quienes figuren excluidas en la lista mencionada dispondrán de un plazo de 3 días hábiles para reclamar contra tal exclusión y subsanar las faltas o documentos que hubieran motivado la misma.

Transcurrido el citado plazo de reclamaciones y una vez resueltas éstas, la Alcaldesa aprobará la lista definitiva de personas aspirantes admitidas y excluidas y ordenará su publicación en el Tablón de Anuncios y en la web municipal. La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones.

Si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del Tribunal que algún/a aspirante carece de los requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia de la persona interesada.

#### *Sexta. Tribunal.*

El Tribunal calificador del proceso selectivo se constituirá de la siguiente forma:

Presidente:

– La Técnica de Organización o Técnico/a en quien delegue.

Vocales:

– La jefa del departamento de deportes o Técnico/a que le sustituya.

– Un/a técnico/a de deportes, funcionario de carrera.

– Un/a funcionario/a de administración general Municipal.

– Un/a funcionario/a municipal.

Secretario/a:

– Un/a administrativo/a del departamento de personal.

El Tribunal actúa con plena autonomía funcional, es responsable de la objetividad del procedimiento, y garantizará el cumplimiento de las bases de la convocatoria.

La composición del tribunal u órgano técnico de selección ha de ser equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. Salvo que se justifique debidamente su no pertinencia.

Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, excepto el/la secretario/a. Las decisiones se adoptarán por mayoría de votos de los presentes, resolviendo, en caso de empate, el/la Presidente/a.

Epaimahaia balio juridikoz eratua izateko, gutxienez hiru kide elkartuko dira, epaimahaiburua eta idazkaria –edo beren ordezkioak– derrigorrez egon beharko direlarik (40/2015 legearen arabera).

Mahaikideek ez dute esku hartuko edo errekusatu egingo dituzte, 40/2015 legeko 23 eta 24 artikuluetan jasotako gora-beherak emanez gero.

#### Zazpigarrena. Hautaketa prozesua.

Deialdi irekiz eta publizitate, gardentasun, berdintasun, merituz eta gaitasun printzipioei jarraituz burutuko da hautaketa.

Ariketa bakoitzaren kalifikazioak argitaratu eta gero, hiru egun baliaduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

Ariketa idatziak egitean, epaimahaia behar diren neurriak hartuko ditu, ahal den guztietan, hautagaien anonimata bermatzeko.

Epaimahaia ahalmena izango du egun berean hainbat ariketa egiteko, bai eta horien ordena aldatzeko ere.

##### 7.1. Lehiaketaldia.

Fase honetan merezimendu hauek baloratuko dira:

###### a) Lan esperientzia.

Baloratuko da 0,5 puntu hileko, eta gehienez ere 7 puntu arte, sorosle lanak egin izana igerileku publikoetan edo hondartzetan.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretiko aldiak izango dira aintzat soilik, eta beti ere, jardunaldiarekiko proportzionalki.

Esperientzia ondoren adierazi bezala justifikatuko da:

– Administrazio publikoan egindakoa: jatorrizko ziurtagiria, Administrazio Publikoak egina, zeinetan jaso beharko den zer lanpostu bete duen eta haren egitekoak, zein lanbide talde edo kategoriatan dagoen eta zer iraupen duen lan harremanak edo funtzionariotzak.

– Enpresa pribatuan egindakoa, bi modu hauetako baten bidez:

a.— Enpresa pribatuaren jatorrizko ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua, zera adieraziz:

– Lanpostu mota, zereginak edo egitekoak,

– Lanbide kategoria.

– Lan harremanaren iraupena.

b.— Lan bizitzaren txosten eguneratua Gizarte Segurantzaren Diruzaintza orokorrak emana eta lan kontratua.

Edozelan ere, enpresa behar bezala identifikatu beharko da, gizarte segurantzako kotizazio kontuaren kodea nahiz identifikazio fiskal kodea dela medio.

###### b) Prestakuntzaren balorazioa.

Baloratuko da 3 punturekin desfibriladorea erabiltzeko egiaztagiriaren jabe izatea.

##### 7.2. Oposizioaldia.

Hemen adierazten diren ariketak egingo dira:

Lehen ariketa: Praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Igerilekuan salbamentu kasu praktiko bat egingo da.

Ariketa hau 0tik 20 puntutara baloratuko da, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Bigarren ariketa: Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

El Tribunal se constituirá con validez jurídica con la asistencia mínima tres componentes, siendo el/la Presidente/a y Secretario/a indispensables, o, en su caso, de quienes les sustituyan (conforme a la ley 40/2015).

Los miembros del Tribunal deberán abstenerse o serán objeto de recusación, cuando concorra alguna de las circunstancias previstas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

#### Séptima. Proceso de selección.

La selección se llevará a cabo por el sistema de convocatoria libre y conforme a los principios de publicidad, transparencia, igualdad, mérito y capacidad.

Tras la publicación de las calificaciones de cada ejercicio, se otorgará un plazo de tres días hábiles para la presentación de reclamaciones.

En la realización de los ejercicios escritos, el Tribunal adoptará las medidas oportunas para garantizar, siempre que sea posible, el anonimato de las personas aspirantes.

El Tribunal se reserva la facultad de realizar varios ejercicios el mismo día, así como de cambiar el orden de estos.

##### 7.1. Fase de concurso.

En esta fase se valorarán los siguientes méritos:

###### a) Experiencia profesional.

Se valorará a razón de 0,5 puntos por mes, y hasta un máximo de 7 puntos, la experiencia profesional como socorrista en piscinas públicas o en playas.

Se considerarán solo los períodos anteriores a la fecha de fin del plazo de presentación de solicitudes y en proporción a la jornada.

La experiencia se justificará de la siguiente manera:

– Realizada en la Administración Pública: certificado original expedido por la Administración Pública, en el que se hará constar el puesto desempeñado y sus funciones, el grupo o categoría profesional en el que se encuadra y la duración de la relación laboral o funcionarial.

– La realizada en la empresa privada, de alguna de estas maneras:

a.— Fotocopia compulsada del certificado original de la empresa privada en el que se haga constar lo siguiente:

– Puesto desempeñado y sus funciones.

– Categoría profesional.

– Duración de la relación laboral.

b.— Informe de vida laboral actualizado expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social y el contrato de trabajo.

En cualquier caso, la empresa deberá quedar suficientemente identificada mediante su código de cuenta de cotización a la Seguridad Social y código de identificación fiscal.

###### b) Valoración de la formación.

Se valorará con 3 puntos hallarse en posesión del certificado acreditativo del manejo del desfibrilador.

##### 7.2. Fase de oposición.

Se efectuarán los ejercicios que a continuación se indican:

Primer ejercicio: Práctico. De carácter obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la realización de un supuesto práctico de salvamento en la piscina.

Este ejercicio se valorará de 0 a 20 puntos siendo necesario obtener un mínimo de 10 puntos para superarlo.

Segundo ejercicio: Euskera. De carácter obligatorio y eliminatorio.

Hautagaiek euskara proba bat egin behar izango dute, 3. HEren parekoa.

Azterketa Udaletxeko euskara sailak egingo du azterketa.

Ariketa hau egitetik salbuetsita egongo dira hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duten hautagaiak, dagokion ziurtagiri bitartez.

Hirugarren ariketa: Psikoteknikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Test psikotekniko edo/eta elkarrizketa bat egingo dira hautagaien bete beharreko lanpostuaren profilerako egokitasun maila ezagutzeko.

Ariketa hau Oti 10 puntutara baloratuko da eta gutxienez 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

*Zortzigarrena. Kalifikazioa.*

Azken kalifikazioa oposizioko puntuei lehiaketako puntuak gehituz lortuko da.

Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, oposizio aldian kalifikaziorik handiena lortu duen hautagaiaren alde erabakiko da. Hala ere, berdinketak jarraituz gero, zozketa bidez erabakiko da.

Hautagaiek gutxienez 15 puntu eskuratu beharko dituzte oposizioaldian. Dena den, aurkeztutako hautagaien % 40ak gutxienezko puntuazio horretara iritsiko ez balira, puntuazioa egokitu egingo da gaindituen portzentajea hori atera dadin.

*Bederatzigarrena. Epaimahairen proposamena.*

Hautaketa probak bukatutakoan, behin behineko emaitzak epaimahaiak udal web orrian argitaratuko ditu. Eta biharamunaz geroztik, nahi izanez gero, hiru egun baliodun izango dituzte erreklamazioak egiteko ahal bada telematikoki.

Erreklamazioak ebatzi eta gero, gainditu duten hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du epaimahaiak web orrian, lortutako puntuazio ordenan, eta organo eskudunari bidaliko dio.

*Hamargarrena. Baldintzak betetzen direla egiaztatu.*

Lan poltsa osatzen duten hautagaiek, 5 egun balioduneko epean, oinarri hauen hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duten egiaztagiria aurkeztuko dituzte.

Adierazitako epean, agiriak aurkeztu ezean edo eskatutako baldintzak bete ezean, ezin izango dute lan poltsa osatu, eta horien jardura guztiak balio gabetu egingo dira, kontuan izanik erantzukizuna izan dezaketela beren eskabideetan gezurra esateagatik.

*Hamaikagarrena. Izendapena / Kontratazioa.*

Ikusirik igerilekuetako sorosle lanpostutan sor litezkeen aldi baterako langileen beharrak, Alkateak izendatuko ditu puntuazio hurrenkeran deituta lan poltsan sartuta dauden hautagaiak.

*Hamabigarrena. Gorabeherak.*

Epaimahaiak baimena du sortzen diren zalantzak argitzea eta lehiaketa-oposizioa ondo joan dadin beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian. Deialdi hau, horren arauak eta hortik datozen eta Epaimahaiaren jardunetik datozen administrazio egintzak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean, urriaren 1eko, ezarritako moduan eta epeetan.

Arrasate, 2020ko maiatzaren 7a.—Alkatea. (2078)

Las personas aspirantes deberán realizar una prueba de euskera equivalente al perfil 3.

El examen se realizará por el departamento de euskara del ayuntamiento.

Quedarán exentas de la práctica de este ejercicio, aquellas personas aspirantes que acrediten el perfil lingüístico, mediante la presentación del correspondiente certificado.

Tercer ejercicio: Psicotécnico. De carácter obligatorio y eliminatorio.

Se realizarán un test psicotécnico y/o una entrevista para conocer el grado de adecuación de la persona aspirante al perfil del puesto a cubrir.

Este ejercicio se valorará de 0 a 10 puntos siendo necesario obtener un mínimo de 5 puntos para superarlo.

*Octava. Calificación.*

La calificación final se obtendrá mediante la suma de los puntos de la oposición y del concurso.

En el supuesto de que se produzcan empates en la calificación, éstos se dirimirán a favor del que posea la calificación más alta en la fase de oposición. Si a pesar de lo anterior persistiera el empate, se resolverá el mismo mediante sorteo.

Los/las candidatos/as deberán obtener un mínimo de 15 puntos en las pruebas de la fase de oposición. No obstante, si el 40 % de los/las aspirantes presentados/as no alcanzara dicha puntuación mínima, ésta vendrá determinada por aquella que suponga la aprobación de tal porcentaje de aprobados/as.

*Novena. Propuesta del Tribunal.*

Finalizadas las pruebas selectivas, los resultados provisionales se publicarán en la página web del ayuntamiento. Desde el día siguiente, opcionalmente, tendrán tres días hábiles para realizar reclamaciones preferentemente vía telemática.

Resueltas las reclamaciones, el Tribunal hará pública en la página web la relación definitiva de aspirantes que han superado las pruebas, por orden de puntuación alcanzada, y elevará el acta al órgano competente.

*Décima. Acreditación del cumplimiento de los requisitos.*

Las personas que constituyan la bolsa de trabajo presentarán en el plazo de 5 días hábiles los documentos acreditativos de las condiciones fijadas en el apartado tercero de las bases.

Quienes dentro del plazo indicado, no presentasen la documentación solicitada, o no reunieran los requisitos exigidos, no podrán formar parte de la bolsa de trabajo y quedarán anuladas todas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que pudieran haber incurrido por falsedad en sus instancias.

*Undécima. Nombramiento / Contratación.*

A la vista de las necesidades de personal temporal que se generan en plazas de socorrista de piscinas, la Alcaldesa nombrará previo llamamiento por orden de puntuación, a aquellas personas aspirantes incluidas en la bolsa de trabajo.

*Duodécima. Incidencias.*

El Tribunal queda autorizado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso selectivo en todo lo no previsto en estas bases. La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquellos y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados por los/las interesados/as en la forma y plazos establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Mondragón, a 7 de mayo de 2020.—La alcaldesa. (2078)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal ■

Esp. kodea: 2020PHPA0002  
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Sorosleen lan poltsa  
Hasiera data: 2020/04/04

ERANSKINA: ESKABIDEA / ANEXO: INSTANCIA

SOROSLEEN LAN POLTSA – BOLSA DE TRABAJO DE SOCORRISTAS	
OPOSAKETA-LEHIAKETA IREKIA CONCURSO-OPOSICIÓN LIBRE	TGB: 2020/05/07

**I. NORBERAREN DATUAK / DATOS PERSONALES**

NA / DNI	Jaioteguna / Fecha de nacimiento	Herritartasuna / Nacionalidad
1. deitura / 1 <sup>er</sup> apellido	2. deitura / 2 <sup>o</sup> apellido	Izena / Nombre
Helbidea / Dirección de residencia	Posta kodea / Código postal	Herria / Localidad
Probintzia / Provincia	Telefona / Teléfono	Mugikorra / Teléfono móvil
%33ko elbarritasuna edo handiagokoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu) / Si tiene una minusvalía del 33% o superior, indique si precisa alguna adaptación especial para realizar los exámenes.		
Posta elektronikoa / Correo electrónico		Gida-baimena / Permiso de conducir Mota / Clase:

**II. TITULU AKADEMIKOA / TITULACIÓN ACADÉMICA**

Deialdian eskatutako TITULU AKADEMIKO ofiziala / TÍTULO ACADÉMICO oficial exigido en la convocatoria

Titulua / Título	Zeinek eta non eman dizuten Centro y localidad de expedición	Noiz lortu duzun Fecha obtención

<b>Kodea</b> CL20/03418	<b>Udala</b> ARRASATE	
<b>Data</b> 2020/api./04	<b>CUDO</b> 000.0055.AAAAHZ10.6.mldp	
<b>URL</b> <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHZ106.mldp">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHZ106.mldp</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu		



**ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal ■

**Esp. kodea:** 2020PHPA0002  
**Titularra:** PERTSONAL SAILA

**Gaia:** Sorosleen lan poltsa  
**Hasiera data:** 2020/04/04

Deialdian eskatutako titulu ofiziala /  
Título oficial exigido en la convocatoria.

Titulua / Título	Zeinek eta non eman dizuten Centro y localidad de expedición	Noiz lortu duzun Fecha obtención

### III. LAN ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA LABORAL

Noiz sartu Fecha ingreso	Noiz utzi Fecha cese	Administrazioaren/Enpresaren izena Nombre de la administración/empresa	Betetako lanpostua Puesto de trabajo ocupado

### IV. EUSKARA / EUSKERA

Titulua euskara maila egiaztatzen duena (edukiz gero) / Título acreditativo del nivel de euskera (si se posee)					
<input type="checkbox"/> 1. HE/PL 1	<input type="checkbox"/> 2. HE/PL 2	<input type="checkbox"/> 3. HE/PL 3	<input type="checkbox"/> 4. HE / PL 4	<input type="checkbox"/> EGA	<input type="checkbox"/> Besterik / Otros

Eskabide honetan agertzen diren datu pertsonalak beste herri-administrazioen esku jartzeko, deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako baimena. / Consentimiento a la cesión de datos a otras administraciones públicas para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria.	
<input type="checkbox"/> Baimena ematen dut Doy mi consentimiento	<input type="checkbox"/> Ez dut baimena ematen No doy mi consentimiento

<b>Kodea</b> CL20/03418	<b>Udala</b> ARRASATE	
<b>Data</b> 2020/api./04	<b>CUDO</b> 000.0055.AAAAHZ10.6.mldp	
<b>URL</b> <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAHZ106.mldp">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAHZ106.mldp</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu		



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal ■

Esp. kodea: 2020PHPA0002  
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Sorosleen lan poltsa  
Hasiera data: 2020/04/04

Eskabide hau izenpetzen dudan honek zera eskatzen dut: inprimaki honetan aipatzen diren hautaketa-probetarako onartua izatea. Era berean, AITORTZEN DITUT eske-idatzi honetan jarritako xehetasun guztiak egiazkoak direla eta Funtzio Publikoan sartzeko baldintzak betetzen ditudala, bereziki ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.

Eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan poltsak kudeatzea ere. Arrasateko Udaleko Alkatea da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko, organo horretara jo beharko da (Herriko plaza nagusia, 1. 20500-Arrasate).

*La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente solicitud. Asimismo, declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las expresamente señaladas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.*

*Los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo. La responsable de este fichero es la Alcaldesa del Ayuntamiento de Arrasate, y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y cancelación. (C/Herriko plaza nagusia, 1. 20500-Arrasate).*

n, 2020ko ren (e)(a)n

En a de de 2020

<b>Kodea</b>	CL20/03418	<b>Udala</b>	ARRASATE
<b>Data</b>	2020/api./04	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAHZ10.6.mldp
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAHZ106.mldp">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAHAHZ106.mldp</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

